BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

4003

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 28koa, Hauteskunde Administrazioa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, Lurralde Historikoetako Hauteskunde-batzordeetan Administrazioaren ordezkariak izendatzen dituena, Eusko Legebiltzarreko 2012ko hauteskundeetarako.

Herrizaingoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 26ko Aginduz (ekainaren 13ko EHAA, 111. zk.) Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-Batzordean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izendatzearekin eman zitzaizkidan aginpideez baliatuz, eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 24.1 artikuluan aurrikusten denaren babespean, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Lurralde Historikoetako Hauteskunde-batzordeetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari honako hauek izendatzea:

- Fernando Kastresana Casanova jauna, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde-batzordean.
- José Ignacio Lazkano Díez jauna, Bizkaiko Lurralde Historikoko Hauteskunde-batzordean.
- Mikel Martínez Garbizu jauna, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde-batzordean.

2.– Lurralde Historikoetako Hauteskunde-batzordeetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkariaren ordezko Reinaldo Jayo Ugalde jn. izendatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 28a.

Hauteskunde Administrazioa, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaria, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-Batzordean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaria,
SONIA FERNÁNDEZ LÓPEZ.